

## Bizkaiko aurrekontuen eztabaida

## EAJk eta EAk Bizkaiko aurrekontuen inguruko akordioa lortu dute EHrekin

Gai sozial, euskara eta enpleguari buruzko neurriak eta Udalbiltza dira ardatzak

Joseba Arruti / Bilbo

EAJ eta EAk azken orduko akordioa lortu zuten atzo EHrekin, Bizkaiko aurrekontuen proiektua foru gobernuari itzuli behar ez izateko. Hitzartutako puntuak zuzenketak partzialak eztabaidatzen direnean erantsiko zaizkie aurrekontuei. Akordioa gorabehera, EHk argi utzi zuen ez direla bere aurrekontuak, eta oraindik ere aldaketak egiten saiatuko dela.

AZKENEKO momentuan EAJ eta EAk Euskal Herritarroekin lortutako akordioak egin zuten posible 2000. urteko Bizkaiko aurrekontuen proiektua foru gobernuari itzuli behar ez izatea. Atzo goizean, Gernikako junte txean, oposizio alderdiek herrialdeko aurrekontuei eginiko osoko zuzenketak eztabaidatu ziren. Azkenean, zuzenketak ez zuten aurrera egin, eta aurrekontuen onarpenerako tramitazioak bere ohiko ibilbidea beteko du.

Josu Bergararen gobernuak eta EHk lortutako akordioaren arabera, urtarriaren lehen hamabostaldian zuzenketak partzialak eztabaidatzen direnean, aurrekontu proiektuari bost arlotan egingo zaizkio aldaketak. Sabin del Bado EHko batzarkideak EGUNKARIARI azaldu zionez, «euskara eta euskal kulturaren inguruko neurri zehatzak, enplegua indartzekoak, Udalbiltzari 93 milioi pezetako laguntza ematea, emakumearen aukera berdintasunerako plangintza eta gai sozialak izan dira akordioaren ardatzak».

Azken gai honi dagokionez, bi neurri zehatz jarriko dira indarrean foru gobernuaren eta EHren arteko akordioari esker. Batetik, pentsio ez kontributiboak eta asistentzialak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenek ere horiek jaso ahal izango dituzte. Hala, Gasteizko Legebiltzarrean hiru alderdien artean lortutako beste akordio bat osatzen da, orduko hartan pentsio



LUIS TEJIDO

EHko batzarkideek presoen Euskal Herriratzea eskatu zuten Batzar Nagusietako eztabaidan.

horiek jasotzeko baldintzak betetzen dituztenei haien kopurua soldata sozialarekin parekatzea erabaki baitzuten. Akordio horretatik at geratu ziren bizkaitarrak, eta Aldundiaren laguntza jasoko dute orain. Bestalde, pentsio hauek dituzten 12 hilabetekoei beste bi gehituko zaizkie hemendik aurrera, eta Bizkaiko Foru Aldundia egingo da horien kargu.

Euskara arloan, foru erakundeetan berorren ezagutza eta erabilera bultzatzeko neurriak jarriko dira indarre-

■ ■ ■ Gastu sozialak indartuko dira, eta Udalbiltzak 93 milioiko laguntza izango du, Eudelek jasotzen duen adina

an. Gainera, Udalbiltzak jasoko duen dirulaguntza Eudeli ematen zaionarekin parekatuko da; 93 milioi.

Azkenik, enplegua sustatzeko neurriak hartuko dira, eta enpresa txiki eta ertainei laguntza teknologikoa eman go zaie.

Sabin del Badok azaldu zuenez, «akordio hauek lortu izanak ez du esan nahi aurrekontu hauek gureak direnik. Gureak izan balira arras ezberdinak ziratekeen», gehitu zuen. Haren esanetan, «eraikuntza nazionalaren eta sozialaren bidean urratsak egin nahi ditugu, eta hor kokatu behar da akordioa».

## Azken momentuko akordioa, oposizio guztiak bat egiteko arriskuaren aurrean

■ PARTIDU POPULARRAK IUren osoko zuzenketaren alde bozkatu zuela iragarri zuenean, gobernuari eusten dioten taldeek oposizio guztia bildu eta aurrekontuak itzultzeko arriskua atzeman zuten. Orduan ekin zitzaion Gernikako Juntetxeko korridoretan EHrekin negoziatzeari. Azkene-

an akordioa lortu zen, eta EH abstentitu egin zen IUkoen proposamenaren aurrean. Hala ere, ez zuten euren osoko zuzenketak erretiratu, «aurrekontuen aurrean dugun jarriera kritikoa islagisa».

PPko Carlos Olazabalek aurrekontuak «ez onak ez sinigarriak» ez direla

esan zuen. Olazabal hitz egiten ari zen momentuan, EHko batzarkideek *Euskal presoak*, *Euskal Herrira* zioten pankarta batzuk erakutsi zituzten.

PSE-EEko Josu Montalbanek aurrekontuak Gobernuari itzultzeko eskatu zuen, eta diru gehiago eskatu gastu sozialerako, azpiegitu-

retarako eta udalentsako. IUko Jose Luis Condek aurrekontuen izaera «antisoziala» azpimarratu zuen.

Gobernuan dauden taldeek -EAJ eta EA- datorren urterako Bizkaiko aurrekontuek herrialdeak dituen erronkei eta herritarren beharri zanei erantzuten dietela iritzi zioten.

## Markina, Altzo eta Hondarribiko udalak Udalbiltzan sartu dira

■ Milioi erdiko aurrekontu-saila bideratzea ere erabaki du Hondarribikoak

Erredakzioa / Donostia

ABENDUAREN 2an, 12an eta atzo, hurrenez hurren, egindako osoko udalbatzetan erabaki zuten Markina-Xemeingo, Altzoko eta Hondarribiko udalek Udalbiltzako kide bilakatzeko, Udalbiltzarekin bat egiteko mozioa onartuta.

Hiru udalek «Udalbiltzaren helburuak, egitasmoak eta izatea» bere egin zituzten, bertako kide izateko borondatea agertarazteaz gain.

Altzon, udalbatza egin ondotik udaletxeko balkoian ikurrina jaso zuten eta, jarraian, herritar eta udal ordezkariak hamaketakoa egin zuten.

Ostera, berorren parte izateko erabakia hartzeaz gain, atzo Hondarribiko Udalak 500.000 pezetako (20.000 libera) aurrekontu-saila Udalbiltzari bideratzea ere ebatzi zuen. Lehen erabakiaren bozketan EAJk, EAk eta EHk alde bozkatu zuten, eta PPK aurka; PSE-EEko zinegotzia ez zen egon. Bigarrenarenean, ordea, EAJ eta EArenak izan ziren aldeko boto bakkarrak, EH abstentitu eta PPK eta PSE-EEK aurka bozkatu baitzuten.

## Legebiltzarrak aurrekontuei 121 zuzenketa gehitzea erabaki du

■ Udalbiltza eta Trebiñorentzako diru-laguntzak dira tartean

Agentziak / Gasteiz

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO hurrengo urteko aurrekontuei 121 zuzenketa gehitu dizkie Gasteizko Legebiltzarrak. Ekonomia Batzordean hiru egunez eztabaidatu ondoren, 121 horietatik talde parlamentarioek aurrekontu-sail ezberdinei eginiko 107 zuzenketa onartu dituzte.

Zuzenketa gehien aurkeztu duen alderdia Euskal Herritarrok da alde handiz.